

**ERABAKIA, 2019ko IRAILAREN 9koa, KOORDINAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO
HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, 2019/2020ko ERASMUS
PROGRAMAREN BARRUAN IRAKASLE-IKERTZAILEEN (IRI) ETA ADMINISTRAZIO ETA
ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) MUGIKORTASUNERAKO DIRULAGUNTZAK
ESLEITZEKO**

2019ko maiatzaren 6an argitaratutako deialdian, zeinetan eskaerak egiteko epea zabalik
egon baitzen 2019ko ekainaren 7ra arte, 138 eskaera jaso ziren.

Osorik aurkeztu ez ziren edo hobetu beharrekotzat jo ziren eskaerak zuzentzeko epea
igaro ondoren, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak,
eman zaizkion eskumenen babesean, honako hau

ERABAKI DU:

LEHENENGOA:- I. eranskinean jasotako eskaerak finantzatzea.

BIGARRENA:- Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke hilabeteko
epean, erabakia Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko
Errektoreordetzako webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik
hasita. Halaber, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa
jarri ahal izango da zuzenean dagokion administrazioarekiko auzien
epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunaren
biharamunetik hasita.

Leioa, 2019ko irailaren 9a

Marta Barandiaran Landín

Iz./Fdo: Marta Barandiaran Landín

KOORDINAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDEA

